



KIROL PROFESIONALA ETA LAGUNTZA PUBLIKOAK

EUSKAL ERAKUNDEAK, BIDELAGUN BAINO GEHIAGO



Norabide anitzeko harreman estrategikoa

Kirok profesionalaren eta administrazioaren arteko lotura garai ez hain urrun batean estuagoa zela diote askok, krisiaz geroztik gizartea eta klase politikoa ez daudela prest edozein inbertsio onartzeko, lehenetsun garrantzitsuagoak badirela eta. Oparaldi urteak pasa omen dira jada. Baliteke, baina harremana indarrean dago oraindik, intentsitate apalagoarekin azaleratzen bada ere. Laguntza publikoak bide desberdinetatik heltzen dira: zuzeneko diru-partidak (babesletzak, uneanuneko kanpaina instituzionalak edota azpiegituren finantzaketa), abantaila fiskalak, instalazio publikoen erabilera (ia) eskusiborako alokairu irriarriak, higiezin enpekulazioa eta abar. Baita Euskal Herrian ere. “Ez egin demagogiarik”, entzungo duzue hala ere laguntzen egokitasuna zalantzan jarriz gero. Egia da hamaika adar duen gai korapilatsua dela eta ez dagoela gauzak sinplifikatzerik, baina zer eztabaidatu badago bederen. LARRUN honetan saiatu gara zenbaki artean ez katramilatu eta datuak testuinguruan kokatzen, baliatuz besteak beste Athletic futbol taldeko eta Bizkaiko Diputazioko ordezkarien, Indar Baskonia hintxa taldeko Ibai Trebiñoren eta EHUko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko dekanok Maite Fuentesen azalpen eta iritziak.

■ **Egilea: Jon Torner Zabala**

Azala: Ainara Azpiazu “Axi” · **Maketazioa:** Antza Komunikazio Grafikoa

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre Kerejeta. **Jabea:** Komunikazio Biziagoa S.A.L. **Helbidea:** Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria **Posta elektronikoa:** larrun@argia.com **Telefonoa:** (00 34) 943 37 15 45. **Inprimategia:** Antza Komunikazio Grafikoa (ARGIAREN 2.527. zenbakiarekin banatua, 2016ko urriaren 30ean)



2011an bezala (argazkian), Bilbora etorri da Espainiako Vuelta 2016an ere. Frantziako Tourra ere ekarri nahi dute instituzioek, izango lukeen inpaktuak erakarrita. Maiz haizutzen dira aurreikuspen ekonomikoei buruzko datuak (antolaketa gastuak baino handiagoak beti), baina ondorengo balorazioetan nekez ematen da zifra zehatzik.

1992an Donostiatik abiatu zen Frantziako Tourra. Ordura arte ez zen sekula Espainiako Estatuko hiri batetik atera, eta 25 urteotan ez da berriro halakorik gertatu. Urte hartan Sevillan egin zen Expo Erakusketa Unibertsala, Madril izan zen Europako Kulturaren Hiriburua, Bartzelonak antolatu zituen Olinpiar Jokoak eta, txirrindularitza albo batera utzi gabe, jokatu ziren Munduko Txapelketa Benidormen eta Nazioen Sari Handia Mallorcan. Instituzioek patrikak bero-bero zituzten garai oparoetan ekarri zuten Frantziako Tourra Gipuzkoara, 300 milioi pezeta ordaindu eta gero.⁽¹⁾

Tourraren gaur egungo zuzendari Christian Prudhomme Bilbon izan zen pasa den irailean, Espainiako Vueltako etapa bat han amaitu zen egunean, Udaleko eta Diputazioko ordezkariekin biltze aldera, Tourra etorkizun hurbilean Bizkaiko hiriburura eramateko asmoa iragarri baitute bertoko instituzioek. Udalak 120.000 euro ordaindu ditu Vueltako etapagatik, eta 100.000 (etapa hasiera baldin bada) edo 600.000 euro (helmuga) ordain litzake, gutxi gorabehera, Tourreko karabana erraldoia ekartzeagatik, horri gehituz segurtasun, argiztapen edota mantenu lanek sor ditzaketen gastuak. Balantzaren beste aldean,

(1) *Un Tour con un único puerto pirenaico*. Sergio Palomontes (*Volata 7*)

agintarien argudiorik erabiliena, hiriaren promozioa –helikopterotik hartutako irudiak medio– eta lasterketak utziko lukeen dirutza, ostalaritzaren sektorean batez ere.⁽²⁾

EUROPAKO BATZORDEAREN “ZIGORRA” ATHLETIC ETA OSASUNARI

2013an inauguratu zuten Bilboko San Mames Barria. Futbol zelaia eraikitzeke 186 milioi euro baliatu dira eta horietatik 43 jarri ditu Athletic-ek. Beste hainbeste bideratu dute Bizkaiko Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta BBK kutzak, eta 11 milioi euro Bilboko Udalak.

Duela hiru urte jasotako salaketa bat tarteko, Europar Batasuna (EB) aztertzen aritu da futbol zelai berriaren finantzazioan Udalak, Diputazioak eta Jaurlaritzak parte hartu izana interpreta ote zitekeen Athletic taldeari emandako estatu-laguntza moduan. Ezetz esan du, kontuan eduki behar direlako besteak beste klubari ezarri zaizkion kanon eta kontra-prestazioak, estadioari emango zaion erabilera publikoa eta eraikiko diren instalazio berriak.

Aldiz, Bruselak eskatu die Athletic eta Osasunari, baita Madril eta Bartzelonari ere, Ogasunari 5 milioi euro (gehienez) itzultzeko, Estatuak emandako laguntza publikoen zati bat legez kanpokoak baita. Europak dio klub horiek jaso dituzten pribilejio fiskalek lehiakortasun printzipioak urratu dituztela, mesede egin dietela beste talde batzuen kalterako. Kontua da, haien izaera bereziagatik, irabazi asmorik gabeko entitate bezala tratatuak izan direla, Espainiako gainerako futbol talde profesional guztiak kirol elkarte anonimoak (SAD) direnean. Alegia, sozietateen gaineko zergari dagokionez %5 gutxiago ordaintzen aritu direla: %25eko tasarekin eurak eta %30arekin beste denak. “Zergadunen dirua futbol talde

profesionalak finantzatzeko baliatzea txapelketak faltsutu ditzake”, azaldu du EBko Lehia komisario Margrethe Vestager-ek: “Fondo publikoak ezin dira talde zehatz batzuei mesede egiteko baliatu, kasu honetan gertatu den bezala”. Real Madrilek, bere aldetik, 18 milioi euro gehiago itzuli beharko ditu Udalari saldu zizkion lursail batzuen balioa gehitxo puztu zutelako.

Hain justu, Europako Batzordearen erabakira egokitzeke, kirol talde profesionalen zerga traktara aldatzeko foru araua onartu zuten Bizkaiko Batzar Nagusiek hilaren 14an, alderdi guztien onespenerekin. Osoko bilkurak araua berretsita, klub profesionalak sozietate anonimoen traktara bera jasoko dute aurrerantzean. Ikusteke dago, dena den, aldetak berarekin ekarriko ote duen Athletic-ek dirua (%5eko alde hori) itzuli behar izatea ala ez. Itzultzekotan, 2012az geroztik *aurrezztatutakoa* itzuli beharko du, hortik atzerakoek preskribitu egin dutelako jada.

Bi kasuek, ziklismoaren esparruko lehenengo eta futbol munduko bigarrena, erakusten dute oparoaldi garaiak amaitu ziren arren, administrazioen eta kirol profesionalaren arteko lotura mantendu egiten dela. 2007az geroztik, gainera, krisi ekonomikoa medio, laguntzen egokitasunari eta kasu batzuetan legezketasunari buruzko eztabaida biziago dago lehen baino. LARRUN honetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako errealitateari heldu diogu batez ere, gizonezkoen futbola eta saskibaloia ardatz hartuta, diru-laguntza publikoen konplexutasunaz jabetzeko adibiderik argienak direlakoan.

SAN MAMES BARRIA, OBRA “ESTRATEGIKOA”

Kirol talde profesionalak jasotzen duten laguntza publikoari buruzko datu zehatzak biltzea ez

(2) *El Tour, un gigantesco ‘spot’ publicitario con audiencia fiel*. Victor Cruzado (*Expansión*, 2015-07-03)



BBK-ko, Bilboko Udaleko, Bizkaiko Diputazioko, Athletic-eko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, 2009an, San Mames Barriaren maketaren aurkezpenean. Guztiek egin dute ekarpen ekonomikoa.

da erraza, besteak beste haien politikaren parte delako egoera ekonomikoaren ingurukoak gehiegi ez haizatzea, eta konfidentziasun legeak debekatzen duelako zergadunen gaineko informazioa ematea, Athletic futbol taldearen eta Bizkaiko Diputazioaren prentsa bulegoetatik azaldu diguten moduan. Gutxi gorabeherako zifra batzuk ematerik badago, dena den.

Aipatu bezala, San Mames Barria estadioaren aurrekontua 186 milioi eurokoa izan da. 43na milioi jarri dituzte Athletic-ek, BBK-k (Kutxabank), Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Diputazioak (horietatik 17 zelai berria dagoen lursailaren balioagatik); eta 11 milioi Udalak (beharrezko lizentziak ez kobratuta). Teilatuaren handitzea (12,6 milioi euro) klubak hartu du osorik bere gain. Urteko alokairuagatik 500.000 euro kobratzen zaizkio futbol taldeari eta mantenu nahiz segurtasun gastuak haren bizkar daude. San Mames Barria S.L. sozietatea da estadioaren jabea, hura finantzatu zuten bost entitateek osatzen duten erakundea.

Merkatuko balioaren azpitik dagoela iritzita, Podemos-Ahal Dugu edota UPyD alderdiek alokairuaren prezioaz galdegin diote Ogasun diputatu Jose Maria Iruarrizagari. Haren hitzetan zentzuzko kopurua da, kontuan hartuta Bizkaiko

Foru Aldundiak urtean bi ekitaldi antola ditzakeela bertan, eta eskubidea duela palkoa eta apartakalekua erabili edota publizitate instituzionala jartzeko. “Obra estrategikoa da, lurraldearen promoziorako garrantzitsua”, azaldu digute Diputaziotik.

Kontraprestazio horien guztien balioa 1,5 milioi eurokoa dela azaldu zuen Iruarrizagak, irailaren 28an Bizkaiko Batzar Nagusietan egingako agerraldian. Orduan zioenez, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari (HKEE) zegokion operazioaren zilegitasunaz erabakitzea, oposizioak mesfidantzaz hartu zuena hein batean, Jose Luis Bilbao delako erakunde horretako presidentea, futbol zelai berriaren operazioa gauzatu zenean Bizkaiko ahaldun nagusia zena. Edonola ere, ez Europak ezta kontuen epaitegiak ere ez dute motiborik ikusi alokairu-baldintzak aldarazteko. “Epaitegi honen ustetan, San Mames Barria sozietateak [bizpahiru espedientetan topatutako lege hausteak alde batera] zuzentasunez bete du 2007tik 2014ra bitarteko ekitaldietan ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia”, irakurri daiteke HKEEren Fiskalizazio Txostenean. Akordioak jasotzen duenez, 50 urterako sinatu duen alokairu-hitzarmena amaitzean, futbol zelaia 66 milioi euroren truke erosi ahal izango du Athletic-ek.

HERRI KONTUEN EPAITEGIA: HUTSUNEAK DITUZTEN DATUAK (2007-2011)

Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako diputazioek 2007-2011 artean eman zituzten diru-laguntzak argitaratu zituen Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) 2014an. Orotara 16.700 milioi euro bideratu ziren, eta horietatik 42 milioi eliteko kirol taldeek jaso zituzten. Athletic-ek esaterako 13,3 milioi poltsikoratu zituen, Bilbao Basketek 9,5, Euskaltel-Euskadi txirrindulari taldeak 8,3, Realak 7,7 eta Gipuzkoa Basketek 2,5.

Onuradunen zerrandan ez da Alaves agertzen, eta Baskoniak 0,7 milioi besterik ez zituela jaso aipatzen da. Epsilon-Euskadi porrot egin zuen 1 Formulako proiektuaren arrastorik ere ez. Zer esan nahi du horrek, Arabako klub garrantzitsuenek ez zutela dirurik jaso? Diru-laguntza moduan ez; bai ordea beste bide batzuetatik: instituzioek Alaves erreskatatu egin zuten 2011n, eta Baskoniak hainbat hitzarmen du sinaturik. Halaber, HKEE-ren txostenak ez ditu bildu babesletza-akordioei buruzko datuak, ezta kirol instalakuntzetara (San Mames, Anoeta...) bideratutako kopuruak ere.

"Agerikoa da txostenak ez duela azken urteotan Araban gertatu dena fideltasunez jaso", zioen Iker Rioja kazetariak *El Mundo* egunkarian. Baskonia eta Alavesen jabe Josean Querejeta berak emandako datuek erakusten dute hori. 2007-2011 aldian saskibalo taldeak ez zituen 0,7 milioi jaso, 6,3 baizik, Diputazioaren eta Gasteizko Udalaren eskutik. "Alaves erreskatatzeko operazioa, bestalde, Diputazioaren bulegoetatik koordinatu zen, agintean EAJ zegoela", dio Riojak. Operazio hark 16 milioi euroko balioa zuen, eta Jaurlaritzak eta Udalak ere jarri zuten euren partea. Esaterako, diru-laguntza bezala bideratu ez baziren ere, Alavesek 2 milioi euro jaso zituen Ibaiko lur-sailengatik; eta Ogasunarekin zuen 5,7 milioi euroko zorra "barkatu" egin zitzaion, Izarra kolegio zaharreko lur-sailak Diputazioaren esku utzita.

Dena dela, argi dago txostenak ez duela diru-laguntzen errepaso erabat fidela eskaintzen, eliteko kirolaren finantzazioa ez baitu osotasunean jaso. "Epaitegiaren helburua da diru-laguntzen laburpen bat egitea, jarduera horren legalitatea zalantzan jarri gabe", dio epaitegiak.

JAURLARITZAREN BABESLETZAK (2010-2013)

2010-2013 artean 9,1 milioi euro inbertitu zituen Eusko Jaurlaritzak, babesletza-modalitate desberdinetan. Diru-partidak hainbat sailek bideratu zituzten: Kulturak, Lehendakariak, Herrizaingoak, Ingurumenak, Industriak eta azken horren menpe dagoen Spri bezalako erakundeek, besteren artean. Laguntzarik handiena Alaves Fundazioak jaso zuen: milioi bat euro baino gehiago, 2011-2016 artean "Arabar Errioxa" marka promozionatzeko.

Euskadi txirrindularitza fundazioak 80.000 eta 400.000 euro arteko zazpi partida jaso zituen, harik eta 2013an desagertu egin zen arte, aurrekontuaren parte handi bat euren gain hartzen zuten instituzioen babesa galduta. Saski Baskonia eta Bilbao Basket ere hainbat laguntzaren hartzaile moduan agertzen dira, "Euskadi" markaren sustapenerako.

KIROL INSTALAZIO NAGUSIAK: 10 URTETAN 200 MILIOI

Instituzioek 200 milioi euro inguru bideratu dituzte azken hamar urteetan San Mames Barria eta Bilbao Arena eraiki, Buesa Arena handitu eta Anoeta eraberritzeko.

- San Mames Barria (Bilbo): 186 milioi euro. BBK-k (Kutxabank) 43, Jaurlaritzak 43, Diputazioak 43, Udalak 11 eta Athletic-ek 43. (Proiektua 2009koa da).
- Bilbao Arena (Bilbo): 42 milioi euro. Diputazioak 21 eta Udalak 21. (2006)
- Anoeta (Donostia): 49 milioi euro. Jaurlaritzak 10, Diputazioak 4 eta Realak 36; Kutxabanken ekarpena ezagutu zain. (2016)
- Buesa Arena (Gasteiz): 30 milioi euro. Jaurlaritzak 15 eta Diputazioak 15. (2010)

Zerrenda honetan saskibalo eta futbol estadioak agertzen dira, albo batera utzita Bizkaia Frontoia modukoak (Diputazioak 24,5 milioi jarri zituen hura eraikitzeko).

Podemos-Ahal Dugu eta UPyD-ko ordezkariak salatu dute salmenta-prezio hori “pagotxa” dela, klubak “fabore tratua” izan duela eta San Mames Barria sozietatea eta kontu epaitegia ez direla “gardentasunez” jokatzeko ari. Zentzu horretan, klubak gogorarazi du Espainiako Estatuko futbol taldeen artean Athletic-ek ordaintzen duela alokairurik altuena, bigarrenarekiko alde nabarmenarekin gainera. Realak, esaterako, bere garaian 500 milioi pezeta (3 milioi euro) baino ez zituen ordaindu 40 urtez Anoeta erabiltzeagatik.

ATLETISMO PISTAK KENTZEA, ASPALDIKO NAHIA

Anoeta estadioa 1993an inauguratu zuten. Hura eraiki eta ingurunea birmoldatzeko 48 milioi euro baliatu ziren. Kopuru horretatik %85 instituzio publikoek jarri zuten: Udalak 18 milioi, Eusko Jaurlaritzak 13, Gipuzkoako Diputazioak 10 baino zertxobait gehiago, Kirol Kontseilu Gorenak (CSD) 3,6 eta Realak aipatutako 3 milioiak besterik ez. Instalazioak Udalak kudeatzen ditu, Anoeta Kiroldegia sozietatearen bitartez.

Ia inaugurazio egunetik bertatik zelaia ingurutzeko duten atletismo pistak eztabaida-iturri izan dira, eta urteetan apenas erabili direla ikusita, sektore batzuetatik maiz egin da korrikalarienezako eremua kentzeko eskaera, euren hitzetan harmailak joko-zelaira hurbilduta Atotxa zaharreko giroa berreskuratuko litzatekeelako. Baina dela krisiak eztanda egin zuelako edo instituzioak San Mames Barriara begira zeudelako –hedabide ugari interpretatu duen moduan–, proiektuak ez du aurrera egiterik lortu, harik eta Realak iragarri zuen arte eraberritze obren zatirik handiena klubak ordainduko zuela.

Anoeta berritua, atletismo pistarik izango ez duena, 2019an inauguratuko dute, aurreikuspen baikorrenak betetzen badira. Obren aurrekontua 51 milioi eurokoa da. Hilaren 14an Kutxabankekin lortutako aurre-akordioak zehazki zein kopu-



ru jasotzen dituen jakiteke dagoela, Realak %50 jarriko du –zuzenean– eta beste erdia Anoeta Kiroldegia. Zentzu horretan 12 milioi gehiago bideratuko ditu klubak, Donostiako Udalarik mailegu, Anoetaren erabilera eta ustiatetarako kanon bezala. Eusko Jaurlaritzak 10 milioi euro jarriko ditu eta Diputazioak 4 milioi. Kontraprestazio gisa, estadioa ustiatzeko epea 2033tik 2067ra arte luzatuko zaio Realari. Udaleko bost alderdietatik lau (EAJ, PSE, Bildu eta PP) agertu dira proiektuaren alde, eta bakarra (Irabazi) aurka.

Hain justu, Eneko Goiak, Donostiako alkate eta Anoeta Kiroldegia sozietateko lehendakariak, urriaren 11n jakinarazi zuen kargutik kenduko dutela sozietatearen administrazio kontseiluan Irabazik duen ordezkari Loïc Alejandro, “estadioaren birmoldaketaren aurka azaldu eta bere jardunak Anoeta Kiroldegia kalte egin diolako”. Arrazoia da, labur azalduta, Irabazik Eusko Jaurlaritzako Kontratuaren inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoari (KEAO) aurkeztutako helegiteak, partzialki onartua izan zenak, baldintza-agiriak aldatzera behartu eta obrak atzeratu dituela. Alejandro kargugabetzeko erabakia EAJ eta PSEk babestu dute; EH Bilduk “alkatearen jauntxokeria” salatu du eta PPrentzat “gogor samarra” izan da.

Proiektuak kostatuko duen 51 milioi euroetatik 44 bideratuko direla Anoetara, ia 3 milioi miniestadiora, 800.000 Kirol Etxera, 500.000 Ernest Lluch zentrora eta 180.000 Gipuzkoako Federazioaren egoitzara.

MARKEL OLANOREN AURKAKO KEREILA

Pasa den martxoaren 16an Donostiako 5. Instrukzio Epaitegiak tramitera onartu zuen Realeko presidente ohi Iñaki Badiolak Gipuzkoako ahaldu nagusi Markel Olanoren aurka jarritako kereila. “Faltsifikazio eta prebarikazio” zantzuak atzeman ditu epaileak, 2009an futbol taldeari 6,4 milioi euroko zorra barkatu zitzaiola-eta (gainera, 6 milioi euroko laguntza eman zion). Herri Kontuen Euskal Epaitegiak 2012ko otsailean argitaratutako txostenak egin zuen publiko zor barkatzea. Realeko kontseiluak bere garaian argitu zuen “legeak aurreikusitako baldintzapean” barkatu zitzaiola zorra: “1982ko irizpide bati jarraiki, bazkideen ordainketen zati bat ez dago

BEZari lotuta”. Klubak azaldu berri du 2009az geroztik Ogasunarekikoak konponduta daudela.

ALAVES ETA EIBAR: ALOKAIRUA, DEBALDE

Anoetaren kasuan bezala, Udalarenak dira Eibarreko Ipurua eta Gasteizko Mendizorrotza futbol zelaiak ere bai. Aitzitik, Eibar eta Alaves taldeek ez dute alokairurik ordaintzen. Ipurua handitzeko obren kostua (3,2 milioi euro) Eibarrek hartu du ia osorik bere gain; Gipuzkoako Diputazioak %10 (320.000 euro) jarri du.

Bereziagoa da, bestalde, aspaldian lokatzetan ibili den Osasunaren kasua. Sadar estadioa (laguntza publikoen arabera beste izen ofizial bat hartu izan duena) eta Taxoareko instalazioak Ogasunari eman zizkion 2014an, 53 milioi euroko zorraren parte handi bat (43 milioi) kitatzeko, eta alokairu-gatik urtean 150.000 euro besterik ez ditu ordainduko datozen 30 urteetan (75.000 euro berriro 2.



BESTE GOL BAT GURE ATEAN

42.000 lagun sartuko omen dira Anoeta estadio berrian. Ia 19.000 lagun joan ziren igandean. Horietatik 1.500 kontrako taldearen zaleak.

3 urtetan [2008-2011 artean] 12 milioi euroko zorra egin omen zion Realeko presidente Aperribayk Gipuzkoako Ogasunari ⁽¹⁾. Garai bereberean 3,1 milioi euro jaso zituen Eusko Jaurlaritzatik Aperribayren Sapa-Placencia arma fabrikak. Iruzurgile

eta armagile baten lehendakaritzapean dagoen futbol taldeari 4 milioi euro emango dizkio Diputazioak eta 10 milioi Eusko Jaurlaritzak, estadioa berritzeko. 14 milioi euro denera. Besteak beste, jokalaria batzuei paradisu fiskalen bidez ordaindu zitzairen arren ⁽²⁾. Ez baitago diruz ordaintzerik titular on bat eta azala *Diario Vascon*.

Eta egia da. Nik ere eraman behar izan ditut Anoetara katalajeak futbol jokalaria ikusteko. Baina ezin nezake defendatu futbol talde bati hainbeste diru publiko ematea. Zer eta inoiz betetzera iritsiko ez den estadioa egiteko. Zer eta armagile iruzurgile batek bilatzen dituen golak finantzatzeko.

Imanol Epelde. 27 Zapata bloga (2016-05-10)

(1) Zor horrek ez luke loturarik Realarekin, baizik eta Aperribayk eta haren hurbilekoek “ad hoc” sortutako Industri Sustapen Sozietateekin, *Extraconfidencial* webguneak plazaratutako informazioaren arabera.

(2) ‘Panama Paperak’: 2000 eta 2008 artean Realak ordainketak paradisu fiskalen bidez egin zituen (ARGIA, 2016-04-03)

mailara jaisten bada). Ez da harritzekoa, beraz, Osasunako presidente Luis Sabalzak esatea klubak ez duela Sadar eta Taxoare berreskuratzeko batere beharrik: “Agian, hobe da dirua bankuan izatea, adreiluetan inbertitzea baino. 30 urterako kontratua dugu sinaturik; ordurako jada ez naiz biziko”, adierazi du. Kontuan izan behar da, halaber, instalakuntzen tasazioak eragin duen zalaparta, hasiera batean Ogasuneko teknikariek kalkulatu baitzuten 30,5 milioi euroko balioa zutela, eta ez 43koa.

Publikoak dira, era berean, Bilbao Basket eta Baskonia saskibaloit taldeek erabiltzen dituzten pabilioiak. Udalarena da Miribillako kiroldegia eta Arabako Diputazioarena Buesa Arena. Kluben ardura da instalazioak txukun mantentzea. Baskonia Taldeak emandako datuen arabera, 2008-2013 artean 3.670.000 euro ordaindu zituen Buesa Arena eta Mendizorrotzaren mantenu-lan eta ur edota argindar hornikuntzagatik.

BILBAO BASKET: ZURRUNBILOAREN ERDIAN

Miribillako kiroldegia (Bilbao Arena da izen ofiziala) 2010ean inauguratu zuten (lehenago BECen jokatzeko zuten Bilbao Basketek). 38 milioi euroko faktura erdibana ordaindu zuten Udalak eta Diputazioak.

Taldeko akzionista nagusia zen Gorka Arrinda enpresariarekin lehen eta hura gabe orain, Bilbao Basketek instituzioekin mantendu duen harremanak zeresan ugari eman du azken urteotan, onerako zein txarrerako. 2012-2014 epealdia bereziki nahasia izan zen; jokalariek greba ere hasi zuten soldatak kobratu ez zituztelako. Bizkaiko Diputazioak erabakita zuten kirol talde profesionalentzako laguntzak kenduko zituela (Bilbao Basketek 1,9 milioi euro jasotzen zituen), baina babesle pribatuak (Uxue energia enpresak) zegokion kopurutik euro bakarria ere ordaindu ez zuela-eta, 2013an kluba erreskatatzea erabaki zuten, horretarako 5,2 milioi euro bideratuta. 1,5 milioi fondo publikoeta-



Gorka Arrinda Bilbao Basketeko kontseilari delegatuak aldamenen du Uxue enpresako ordezkaria. 2012-13 denboraldi nahasian babestu zuten energiaren sektoreko konpainiak saskibaloit taldea. Ez zuten hitz emandakoa bete, eta Diputazioak kluba erreskatatu behar izan zuten.

tik atera ziren, eta Ogasunarekin zuten 3,7 milioi euroko zorra barkatu egin zitzaion taldeari. Instituzioak akordioa zuten sinatua Bilbao Basketekin, 2014-2016 bitartean 5,7 milioi euro emateko (urtean 1,9 milioi). Hitzarmena bertan behera utzi eta dirua aurreratzea hobetsi zuten. “Zorra kitatu eta 2016rako hitzarmena bertan behera utzita, une honetatik aurrera ez dago kontratuzko harremanik Bilbao Basketekin”, adierazi zuten Jose Luis Bilbao diputatu nagusiak: “Taldearen salbazioa ekarri du, baina orain gestorei dagokie bideragarritasun plana egitea, Diputazioaren babesletzarik gabe”.

Ahaldun nagusiaren hitzetan, Bilboko kluba erreskatatzea erabaki zuten 2014ko Munduko Txapelketako lehen fasean AEBetako selekzioak BECen jokatzeko –eta horrek leharkeen inpaktu ekonomikoa ez galtzeko– ezinbestekoa zelako taldea ez desagertzea. EH Bilduko ordezkariak ordea bestelako datua eman zuten: Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Diputazioak Espainiako Saskibaloit Federazioarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, AEBetako selekzioa BECera ekartzeko nahikoa zen instituzioek 700.000 euro ordaintzea (Mundu-

ko Txapelketako egoitzetako bat izateagatik Bilbok jada ordaindu zituen 1,8 milioi euroez gain), kluba desagertu ala ez.

Erabakiak polemika eragin zuen, testuinguru berezian gertatu zelako. Izan ere, 2012ko abenduaren 22an onartutako foru-aurrekontuetan %80 murriztu ziren Gizarte Inklusiorako Laguntza Bereziatarako baliabideak. 2011n 3.615.000 euro bideratu ziren, eta 2012an 737.000 euro.

ZORRA ATZERATU ETA ERRESKATE BERRIA

Denbora igarota, saskibaloit taldearen egoera konpontzeke zegoen. 2015eko abenduaren 30ean Diputazioak onartu zuen klubak Ogasunarekin zuen 6,5 milioi euroko zorraren zati bat (3,1 milioi) hiru urtera atzeratzea, babesle nagusiaren (Dominion) abalari esker.

Eta 2016ko ekainean, “Administrazioak taldea erreskatatu du” moduko titularrak azaldu ziren berriro ere. ACB ligatik kanporatuko lukeen hartzekodunen konkurtsoari iskin egin zion klubak, milioi bat euroko kreditu-lerroa lortuta. Zuzendaritzak iragarri zuen 2,7 milioi euroko zorrari aurre egiteko modurik topatu ezean ordainketak eten behar izango zituela, eta Rural Kutxak aipatu kreditu-lerroa eman bazion, Bilboko Udalak egindako ahaleginagatik izan zen, hark jarri baitzuen operazioak eskatzen zuen milioi bat euroko abala. Udalak urtetik urtera berritu ohi zuen lankidetzaz hitzarmena Bilbao Basketekin, baina egoerak behartuta bost urterako diru-laguntza onartu berri du: 200.000 euro urtean, 2017tik 2021era bitartean. Bilboko alkate Juan Maria Aburtok adierazi du laguntza hori jaso ezean taldea desagertu egingo litzatekeela: “Bilbao Basket ez da kaudimengabe deklaratu edo porrot egin duen enpresa bat, altxortegi-arazoak dituen kluba baizik”. PSEk eta PPK akordioa babestu zuten, EH Bilduk eta Udaberrik aurka bozkatu eta Ganemos-Goazen Bilboko abstenitu egin zen. “Laguntza hori jaso ahal izateko taldeari eskatzen zaion bakarrik partidak joka-

tzea da, ez dago batere gaizki”, zioen EH Bilduko bozeramaile Lander Etxeberriak. “Klubak hiriarri balio erantsia ematen dion arren, pribatutik kudeatutako beharrek enpresa pribatua izaten jarraitzen du”, gehitu zuen Ganemos-Goazen Bilboko alderdiko Francisco Samir Lahdou-ek.

Zorrak kudeatzeko moduak Araban ere sortu du eztabaidarik, Baskonia saskibaloit taldearen inguruan bereziki.

BASKONIA: BALDINTZA ONURAGARRIAK

Javier de Andrés (PP) buru zuen Diputazioak “ordainketa plan berezia” onartu zuen 2014ko abenduaren 30ean, taldeak Ogasunarekin zuen 7,5 milioi euroko zorrari aurre egiteko. “Arabako Ogasunak Saski Baskonia erreskatatu zuen”, irakurri zitekeen *Eldiario.es* agerkariak 2016ko abuztuaren 9an plazaratutako artikuluan. 725/2014 akordioa medio, zorrari aurre egiteko epea 2020ra arte luzatu zitzaion Baskoniari. “1995az geroztik sinaturiko plan ‘bereziak’ hobetzen ditu akordio horrek”, nabarmendu zuen Iker Rioja kazetariak. Bi egun beranduago, abuztuaren 11n, Baskoniak idatzia kaleratu zuen. Zioenez, 2014an zituen zorrak ez ziren 7,5 milioi eurora iristen, nahiz eta onartu atzeratutako dirua ordaintzeko egutegi berria negoziatu zuela.

Zera dio, hitzez hitz, 2014ko abenduaren 30eko Arabako Aldizkari Ofizialak: “Diputatuen Kontseiluaren 725/2014 erabakia, Saski-Baskonia SAD sozietateari onartzen diona ordainketa plan berezi bat, Arabako Foru Ogasunarekin ordaintzeke dituen hainbat zerga zor kitatzeko”. Eta beste hau, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak aurkeztutako 2014ko fiskalizazio txostenak: “Diputatuen Kontseiluaren 725/2014 erabakiaren bitartez zordun bati 7,5 milioi euroren printzipalaren gainean zatikapena eman zaio; horietatik 5,1 milioi euro aurrez geroratu eta zatikatutako zorrak dira, 5 urteko aldirako, araudi arautzailean ezarri-

tako epea gaintutuz eta inongo bermerik aurkeztu gabe”. Ezin esan, beraz, *Eldiario.es*-ek emandako datua oso aldrebesa denik.

Are gehiago, SER irrati katearen arabera, Ramiro Gonzalez (EAJ) ahaldun nagusiaren gobernuak ere Baskonia “erreskatatu” zuen 2015eko abenduan, Ogasunarekin zuen 6,5 milioi euroko zorra atzeratu eta zatikatzeko eskariari berriro men eginda. Plan berria adar bikoa da: batetik, ordainketak 5 urtetan zatikatzen dituen; bestetik, Baskoniak jaso ohi duen diru publikoa baliatuko zen zorraren parte bat kitatzeko. Alegia, kasu honetan Diputazioak publizitate terminoetan bideratutako 1,3 milioi euro ez zituen Baskoniak jasoko, baizik eta zuzenean pasako zela Kultura eta Kirol Departamendutik Ogasunera.

Ogasuneko iturrien arabera horrek ez du esan nahi Baskoniari zorra “barkatzen” zaionik, kontraprestazioa jada egon badagoelako: Arabaren publizitatea Buesa Arena pabilioian eta taldearen ekipamenduetan. Klubak ere horixe dio, inork ez diola deus barkatu, 725/2014 akordioak goiburuan “zorrak kitatu” aipatzen duen arren. Josean Querejeta buru duen enpresa-taldeak (barnean biltzen dituen Alaves edota BAKH kirol hiria ere bai) adierazi du Baskoniak sekula ez diola Ogasunari ordaintzeari utzi, eta gizarteari gehiago itzultzen diola jasotzen duena baino. Dioenez, Baskonia Taldeak 27 milioi euro bueltatuko ditu 2017an BEZ, PFEZ eta Gizarte-Segurantzaren artean. Ramiro Gonzalez diputatu nagusiak *El Mundo* egunkariari eskainitako elkarrizketa batean zioenez, “kirol elkarte anonimoek ez dute pribilejorik jasotzen; egoera zailean dauden enpresa guztiei eman behar zaizkie erraztasunak, ordainketak atzeratu edota zatikatuta”.

Diputazioak soilik ez, Gasteizko Udalak ere laguntzen du Baskonia, bai zuzenean, baita Alaves futbol taldea barnean hartzen duen 5+11 Fundazioaren edota BAKH kirol-hiriaren bitartez ere. Eusko Jaurlaritzak aldiz ez du babesletza-akordioaren zati bat berritu (200.000 euro ingurukoa,

nazioarteko txapelketak jokatzeari zegokiona), Ogasunarekin edota Gizarte-Segurantzarekin zordun diren entitateek ez dutelako laguntza publikoak jasotzeko eskubiderik, Aldizkari Ofizialean publikatutako ebazpen baten arabera.

EKITALDI HANDIEN GOSE ORAINDIK ERE

Txirrindularitza kontuak aipatuta hasi dugu erreportajea, eta amaitu ere halaxe egingo dugu. Izan ere, amateur mailako Infisport-ArabaEus txirrindulari taldea desagertu egingo da 2017an, laguntza publikoen murrizketek eta babes pribatu nahikorik aurkitu ez izanak bultzatuta. 2014az geroztik Jaurlaritzak, Arabako Diputazioak eta Gasteizko Udalak laguntzen zuten taldea. Ez da bakarra. Duela gutxi gauza bera iragarri zuen Seguros Bilbao historikoak, eta EDP-k jakinarazi du Euskadi Fundazioa babesteari utziko diola.

Bien bitartean, gogora dezagun Espainiak bere burua aurkeztu duela Europako Futbol Txapelketaren edota Joko Olinpikoen anfitrioi izateko, ekitaldi ponpoxoak antolatzeke grina itzaltzeke. Tesuinguru horretan kokatu behar da 2017an Tarragonan egingo diren Mediterranear Jokoei buruzko albiste hau: Udala aztertzen ari da instalazioen kudeaketa 2057ra arte enpresa pribatu baten esku uztea. “Negozio-eredua argi dago”, dio *Ciclismo2005*-eko blogari Sergiok, laguntza publikoez luze eta sakon idatzi duenak. “Bi asteko festa –apenas duena oihartzuna– denon diruarekin ordaintzen da, eta behar larriagoak albo batera utzita eraiki diren instalazioak, kanon barregarrien truke uzten dira enpresa pribatuen eskuetan. Hamar urte igaro ditugu jada krisian eta enpresa-eskema mantendu egiten da: kirol ekitaldiak antolatzeke eskatzen dugu harri filosofala balira bezala, propaganda, *laguntxokeriak* eta ustelkeria izanik ezaugarri. Espainian eman diren korrupzio kasuen parte handi batek harremana du ekitaldi handiei loturiko kirolaren industriarekin”. Gurean hala gertatzen denik ezin esan daiteke, baina zer pentsatu eman beharko lukete hitz horiek. ■



Ibai Trebiño

Indar Baskonia hintxa taldeko kide eta kirol teknikaria

“Bisitariiek dirua dakartela diote, eta ostalaritzan onerako nabari dela; enpresa pribatuak dira, ordea”

Baskonia eta Alaves dira Araban erreferentzia. Laguntza publiko ugari jaso dute urtetan...

Hala da. Alavesen kasuan, Diputazioak eta Udalak salbatu zuten hein batean taldea; eta Baskoniak ere diru-laguntza ugari jaso du, esaterako, 30 milioi euro inguru pabilioia handitzeko. Horri gehitu behar zaio *EIDiario.es*-ek plazaratutako informazioa, Diputazioak barkatutako zorrari buruzkoa. Dena den, ez da Araban soilik gertatzen, praktika sistematikoa da Euskal Herrian.

Euskal Herrian oro har eta Araban zehazki, diru-laguntzen inguruko auziak sortzen al du nahikoa eztabaidarik, bai politikarien artean, bai gizarteko gainerako esparruetan? Zale moduan zein iritzi duzu zuk?

Elkarte anonimoek jaso ohi dituzten laguntzak diren heinean, auziak eztabaida pizten du. Diru kopuru handiak dira gainera, behar larriagoak asetzerantz bideratu beharko liratekeenak.

Maila politikoan, tamalez, alderdiek ez dute jarrera bera mantentzen Araban eta esaterako, Bizkaian. Han apenas kritikatu dituzte Athletic-

ek jasotako laguntzak, klubaren aurka egiteak ez duelako etekin politikorik ematen. Talde guztiek jasotzen dituzten laguntzen inguruko diskurtso askoz ere zorrotzagoa izan beharko lukete politikariek. Moral bikoitza dagoela uste dut. Futbolearen, saskibaloian eta oro har kirolean ikusten den eman-hartu zikinaren aurkako borrokaren abangoardian zaleak baino ez gaude eta hori negargarria da.

Zein norabidetan joan beharko lirateke kirolera zuzendutako laguntza publikoak?

Legez, oinarrizko kirola laguntzeko betebeharra du Diputazioak, klubak babestu behar ditu. Athletic edo Osasuna adibidez klubak dira, baina futbol eredu kapitalista baten dinamikan murgilduta daude, ez dago ezberdintasun handirik talde horien eta SAD Kirol Elkarte Anonimoen artean, ez bada barne-antolakuntzan. Horrelako talde batek laguntza publikoa jaso beharko ote lukeen? Iritzi kontrajarriak daude, gai oso konplexua da.

Eusko Jaurlaritzak eliteko kirol ez-profesionala laguntzeko beharra du eta horri erantzuten dio

BAT Basque Team programak [ikusi koadroa]. Kirol ez profesionalera bideratzen diren laguntzak txikiak dira halere. Jar dezagun adibide moduan Maider Unda borrokalari gasteiztarren kasua, brontzezko domina bana lortu duena Joko Olinpikoetan eta Munduko Txapelketan. Egunez lan egin eta arratsaldez entrenatzen du. Ez da justua. Ez da bidezkoa eliteko kirolari batzuei ematen zaien tratua, are gehiago futbol profesionalak mugitzen duen dirutza publiko eta pribatuari so egiten badiogu.

Arazoa da gaur egungo kirol eredia kapitalismoarekin loturik dagoela. Etsenplu gisa, begira diezaiozun sobietar garaiko zenbait herrialde sozialistaren jardunari. Diru asko inbertitzen zuten kirolarien mesedetan, errendimendu altuko zentroak erdigunean jarrita, eta emaitzak begi bistakoak dira. Inor ez zen Joko Olinpikoetatik kanpo geratzen diru kontuak zirela-eta; guztiak ziren profesionalak. Hori da bermatu behar dena, eliteko kirolariak profesionalak izatea. Diru publikoa zentzu horretan bideratu behar da.

Kapitalismoa gailendu egin zaie kirolak transmititu beharko lituzkeen baloreei. Hori da kritikatu behar dena, ez gara kirolaz hitz egiten ari, baizik eta kirolaren izenean dagoen negozio dirudun bati buruz. Gauzak diren bezala esan behar dira.

Laguntza publikoak kritikatzeari demagogia egitea dela diote batzuek, talde horiek zergetan gehiago ematen dutela jasotakoa baino, kasu honetan Arabaren izena zabaltzen dutela, Gasteizera dirua ekarri, lanpostuak sortu... Guztia termino ekonomikoetan neurtzea egokia al da zure ustez?

Arabari edo beste edozein herrialderi publizitateak dakartzkion etekinak zenbatekoak diren ez dago argi. Nik dakidala horren inguruko daturik ez da ematen. Turismoak dirua dakarrela diote, eta ostalaritzan adibidez onerako nabari dela hori. Baina enpresa pribatuak dira horiek, alegia, diru publikoa erabiltzen da Arabaren irudia

zabaltzeko, eta horri etekina ateratzen diotenak zonaldeko enpresa batzuk dira. Lanpostuak sor daitezke, noski. Betiko argudioa da. Orokorrean enplegu prekarioa da, baina, onurarik handiena kapitalistari dakarkiona. Eztabaida hortxe egon behar da. Kontua da langabezia jaisten dela esaten digutenean inor gutxik begiratzen diela lanpostu berrien baldintzei. Ikaragarritzko tranpa dago hor, gizartea engainatu eta manipulatzeko balio duen amarrua da. ■

BAT BASQUE TEAM

Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoen Euskadi Kirola Fundazioak, Basque Team (BAT) markarekin aritzen denak, 911.000 euro banatu zituen 2015ean (aurtengo diru-laguntzak esleitzeko daude), profesionalak ez diren goi-mailako 59 kirolari, 15 teknikari eta emakumezko bi talderen artean, Bera Bera (eskubaloia) eta Real (belar hockeya). Beka jaso dutenen artean daude, besteak beste, Rioko Joko Olinpikoetan urrezko domina irabazi duen Maialen Chourraut eta diploma lortu duten Ander Elo-segi eta Iñigo Peña, piraguitak hiruak. Baita Iker Martinez (bela), Maider Unda (borroka), Eider Pinedo eta Patricia Elorza (eskubaloia), Leire Olaberria (txirrindularitza), Richard Oribe (igeriketa), Kako Aranburu (plater-tiroa), Jon Santacana (eskia) edota espainiar selekzioarekin aritu diren Athletic-eko lau jokalaririk ere: Eli Ibarra, Irene Paredes, Erika Vázquez eta Ainhoa Tirapu. Kirolari olinpikoen kasuan, beka jaso duten 31 kirolarietatik 16 dira gizonzkoak, eta 15 emakumezkoak; Olinpikoak ez diren kirolarien alde askoz ere handiagoa da: zortzi gizonzko eta emakumezko bakarra ageri dira. Kirol egokituaren alorrean zazpi beka eman ditu fundazioak, gizonzkoek guztiak. Orotara 120 eskaera jaso zituen BATEk; 76 onartu ditu (%63,3).



Maite Fuentes

EHUko Jarduera
Fisikoaren eta Kirolaren
Zientzien Fakultateko
dekanoa

“Kirol ekitaldi handiak gai dira euren kabuz mantentzeko, ez dute laguntza publikorik behar”

Kirol talde profesionalak beste enpresa baten moduan tratatu beharko liratekeela aipatu izan duzu, eta orain arte gizartean erabat onartuta zegoela klub horiek diru-laguntza publikoak jaso eta zorrak izatea.

Urtetan, enpresek eta kirol talde profesionalak ez dute tratatu bera jaso, zentzu askotan, izan kontratazioan, zerga kontuetan... Adibide moduan: langileen zirkulazio askeari betoa jartzen zitzaion, Europar Batasuneko (EB) Justizia Auzitegiak 1995ean Bosman Legea onartu zuen arte [ikusi koadroa]. Bestetik, aipatu behar da Gizarte Segurantzarekin edo Ogasunarekin pilatutako zorrak barkatu izana, edota klub eta jokalariek jasotzen duten tratatu berezia.

Enpresa handiek kirolarekin bat egitea ohikoa da: Kutxabank Athletic eta Realaren babeslea da, 2016ra arte Euskadiko Kutxa izan da Baskoniarena... Zer iritzi duzu horren inguruan?

Enpresa handiek erantzukizun soziala dute, bide desberdinetatik gauza daitekeena. Horieta-

ko bat baldin bada kirola babestea, ongi iruditzen zait. Baina zalantzak ditut hartzailea kirol profesionala izan beharko ote litzatekeen, beste parametro batzuen arabera funtzionatu beharko lukeelako. Kirol profesionala babesteagatik enpresa pribatuek ez lukete pribilegio fiskalik izan behar [49/2002 Legeak arautzen dituen zerga-onurez ari da].

Esan ohi da kirol talde batzuek gizarteari ekarpen sozio-ekonomiko handia egiten diotela, eta laguntza publikoak jasotzea justifikatzen duela horrek.

Nire ustez soilik ekitaldi handiek eta kirol batzuetako zenbait txapelketak dute inpaktu sozio-ekonomikoa. Eta ekitaldi horiek gai dira euren kabuz mantentzeko, ez dute laguntza publikorik behar. Babes instituzionala jasotzea zuzen ikusten dut, baina termino ekonomikoetan egitea ez.

Zentzu horretan, futbola beti irabazle. Gurpil baten modukoa da: diru mugimendua nork sortu, instituzioek hura lagundu, horrek diru-mugimendu handiagoa ekarri, gehiago lagundu...

Argi dago futbola dela inpaktu sozio-ekonomiko handiena duen kirola, baina hain justu horregatik, bere kabuz mantendu beharko litzateke. Ez du laguntzarik behar, autofinantzatu ahal izateko nahikoa diru-sarrera sortzen du.

Uste dut administrazioak eliteko kirola lagundu beharko lukeela, baina profesionala ez, enpresa bati zor zaiolako.

San Mames, Anoeta... diru-laguntzen auziak zalaparta eragin du azkenaldian, krisia lehertu zenetik bereziki.

Kirol taldeak gainerako enpresak bezala tratatu beharko lirateke, aurrez esan dudan moduan. San Mames eta Anoetaren kasuak ez dira berdinak. Aurrenekoak jabeago pribatua du eta klubak hartu beharko luke bere gain obren kostua, beste edozein fabrikak bere instalazioak berritu eta handitzean egin ohi duen bezala. Anoetaren jabea ordea Donostiako Udala da; botere publikoari dagokio ikertzea espazio hura eraldatzea behar ote den, komunitateak erabili beharko lukeela kontuan izanik betiere.

la dena balio ekonomikoetan neurtzen den garaio-tan, zein beste faktore hartu beharko litzateke kontuan?

Bizitzako gainerako esparruetan bezala, musikan edota artean adibidez, gai ekonomikoaz gain beste balore batzuk hartu behar dira aintzat. Ezer baldin badakigu, ariketa fisikoak osasunean onura handiak dakartzala da, kirola bere horretan baino harago doazenak.

Unibertsitateak zein paper jokatzen du honetan guztian?


Gizarteko beste edozein sektorek bezala, unibertsitateak eztabaidatu egin behar du hausnarketak sakona behar duten gaien inguruan, eta kirola horietako bat da. ■

'BOSMAN' ETA 'BECKHAM' LEGEAK, ABERATSENEK ZERBITZURA

Jean Marc Bosman futbolari belgikarraren auziak kirolarien zirkulazio askea ekarri zuen: 1995ean Europar Batasuneko (EB) jokalariek "atzeritar" izateari laga eta "komunitario" izateara hartu zuten, eta "libre" geratuko ziren futbolariengatik taldeek ez zuten kalte-ordainik gehiago jasoko. Epaiak klub aberatsenei egin die urteotan mesederik handiena, munduko jokalaririk onenak fitxatu ahal izan dituztelako, naziotasuna edozein izanik ere. Auziak futbolaren eta oro har kirolaren mundua irauli zuen. Ziurrenik, orduan hasi zen futbola gaur egun nagusi den negozio izatera sarri kritikatu bereganatzen, Madril, Bartzelona, Juventus, Milan, Bayern, Manchester, Arsenal eta Chelsea bezalako erraldoien jardunak hauspotuta. Liga handienetako talde apalagoek koska bat behera egin zuten, eta Europako liga ez hain indartsuetako edota Amerikako klubek ikusi dute euren jokalaria onenak talde handi horiek fitxatzen dituztela.


Eta Bosman aipatuta, ezin Beckham Legea ahaztu. PSOEren Gobernuak onartu zuen 2005ean, 687/2005 Errege Dekretua izenpean. Espainiako Estatuko enpresa handiek baliatu ahal zituzten pribilegio fiskalak eskaintzen zituen arau horrek: prestakuntza maila altuko langile atzeritarrei zerga baxuagoak ezarri zitzaizkien, zientziaren edota ingeniartzaren sektoreko profesional kualifikatuak erakartzea xede. Futbol taldeak ohartu ziren izar handiak fitxatzeko egundoko abagunea eskaintzen zuela, eta halaxe hasi ziren, klub aberatsenak bereziki. Lege honetara atxiki zen lehendabizikoa David Beckham izan zen, hortik izena. Jokalari britainiarrak eta gainerako *galaktikoek*, ikaragarritzko soldata zeukaten horiek, 1.000 euro kobratuko balute bezala ordaintzen zioten Ogasunari. Legea 2010ean indargabetu zuten.

Egunero lan berriak sareratzen ditugu
1.800 bideo baino gehiago ikusgai



Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.




Elkarrizketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.





Web Telebistak

Euskal Herrian eta euskaraz egiten diren web telebista guztien biltokia.





Ekitaldiak

Ekitaldi interesgarriak klik batean, baita nazioartean emandakoak ere.




Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitituluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.